

22. AZPEITIKO SALSILBESTRIE - ARAUDIA

1.- Artikulua - "XEYE" K.E., AZKOITIAZPEITIA arteko 22 AZPEITIKO SALSILBESTRIE antolatu du. Proba honetan 12 urtez gorakoek parte har dezakete emakumezkoak nahiz gizonezkoak, bertakoak nahiz kanpokoak, federatuak egon edo ez.

2.- Artikulua - Azpeitiko Udalak, babestutako proba da.

3.- Artikulua - Lasterketa hau 3 edo 6 kilometrokoa izango da. 2023ko abenduaren 31an egingo da; irteera eta helmuga Azpeitiko enparantza nagusian izango da.

4.- Artikulua - Lasterketan parte hartu nahi dutenek antolatzaileek izena emateko presaturiko orria bete beharko dute. Izena emateko orriak ohiko lekuetan eskuratu ahal izango dira.

Izena ematerakoan 7 eta 15 Euro bitartean ordainduko dute partaidetza-kuota moduan.

5.- Artikulua - Antolatzaileek adierazitako ibilgailuek bakarrik jarraituko ahal izango dute lasterketa.

6.- Artikulua - Antolatzaileek bere gain hartu dute proba modurik egokienean eta kiroltasun osoz egiteko ardura. Horretarako, aurrez antolatze-lanetan aritu den jendeak kontrolatuko du lasterketa eta GURUTZE GORRIAREN laguntza eta asistentzia ere izango dira.

7.- Artikulua - Antolatzaileek lasterketa aurretik azterketa medikoa egitea gomendatzen diete lasterkariei, badaezpada.

8.- Artikulua - Antolakuntzak bere gain dauka "Erantzukizun Zibila"ren poliza eta atletik edukiko dute "Erantzukizun Zibil eta Ezbeharren" aseguruua.

9.- Artikulua - Laisterkariak izena ematen duen unetik arauak guztiz ezagutu eta onaritzen ditu. Eta adierazten du sasoi onean dagoela eta ez duela bere burua arriskuan jarri edo lasterketan parte hartzea eragozten dion gaixotasunik. Bere gain hartzen ditu, baita ere, proba honetan parte hartzeak sor diezazkiokeen kalteak.

10.- Artikulua - Dorsala ikusgai izan bekarko da probaren ibilbide osoan.

11.- Artikulua - Parte hartzaileak, argazki, bideo eta beste edozein ikus-entzunezko materialean azaltzen denean, publizitate erabilera baimentzen dio antolakuntzari, onartuz bere izena azaltzea probako sailkapenean, komunikabideetan eta/ edo Interneten.

12.- Artikulua - Ezinbestekoa da izen emate orrian eskatzen diren datu guztiak zuzen betetzea NAN zenbakia barne.

13.- Artikulua - Abenduaren 13ko 15/1999 lege organikoan, izaera pertsonaleko datu-babesari buruz ezartzen denarekin ados, parte hartzaileek emandako datu pertsonal guztiak eta lasterketan lortutako irudiak, antolakuntzako fitxategian gordeko dira, lasterketako parte-hartzea kudeatzeko, baita ere beraren sustapena, banaketa eta difusiorako.

14.- Artikulua - Lasterketa ezeztatzen bada antolakuntzaren esku ez dauden arazoen gatik, barne eta ez mugatuta, ustekabeko klimatologia, udal, eskualde edo nazioko autoritateen dekretua, leherketa, gerrako ekintzak, matxinada, ekintza terrorista edo ekintza

terroristaren mehatxua, sabotaiia, epidemia edo grebak, parte-hartzaileek ez dute esku-biderik izango izen-emate-kuotaren dirua jasotzeko ez eta beste galera batzuen ordainketarako hala bidaia-gastuak edo ostatua.